

Hitzezkoa ez den komunikazioko bideo-galderak

1. Bideoaren hasieran, gorputz-hizkuntzaren egokitzapen-balioa nabarmentzen da. Zein adibide aipatzen da?

Bideoan aipatzen den adibidea begiak dira, begiek beti islatzen baitute egia.

2. Zer hiru alderditan oinarritzen da marinelen kidegoko inteligentzia ofizial ohia New Jerseyko estatuko agintaritzaren agenteak nortzuk diren jakiteko?

New Jerseyko estatuko agintaritzaren agenteak zeintzuk diren jakiteko jantzita daramaten arropan, hitz egiteko moduan eta esertzeko eran oinarritzen da.

3. Ba al dago kultura-desberdintasunik hitzik gabeko hizkuntzaren esanahiari dagokionez?

Bai, hitzen bidezko komunikazioan bezala, hitzik gabeko hizkuntzaren esanahietan ere desberdintasunak daude kultura desberdinetan.

4. Bideoan emandako informazioaren arabera, zer esanahi du mendebaldeko munduan pertsona bat beste baten aurrean jartzeak, bien artean espazio txiki bat utziz? Eta Ekialde Hurbilean zer esanahi hartzen du gorputz-jarrera horrek?

Mendebaldeko munduan pertsona bat beste batengandik oso gertu jartzeak borrokarako nahia esan nahi du, izan ere, mendebaldean ez dute ekialde hurbilean bezain gertu hitz egiten. Ekialde Hurbilean, ez du borrokarako nahirik adierazten, oso ohikoa baita beste pertsonarengandik oso hurbil gaudelarik hitz egitea.

5. Zeintzuk dira poliziarentzat bideoan aipatzen diren gorputz-hizkeraren funtsezko adierazleak?

Hurrengoak dira poliziarentzat funtsezkoak diren gorputz-hizkeraren adierazleak: gidaria kotxetik ateratzea, berokia ixtea, eskuak poltsikoetan sartzea (urduritasunaren seinale edo poltsikoan daukan zerbait hartzeko asmoz) eta gidariak poliziar kolpetxo bat ematea (borrokaren seinale da).

6. Zein da mehatxua jasan ahal izateko baldintza?

Mehatxua jasan ahal izateko mehatxu-egoerak zeintzuk diren ondo ezagutzea; eta hauek noiz ematen diren ikastea beharrezkoa da.

7. Zer hiru seinale mehatxagarri zerrendatzen dira bideoan pistola bat ezkutatzea lortzeko?

Arma txamarreko poltsikoan edukiz gero, bultoa disimulatzeko berokia luzatzea edo astintzea.

Posizioz aldatzea, hau da, polizia kokatzen ez den aldera giratzea; eta pistola errazago hartzeko behatz potoloa mugitzea.

8. Deskribatu zertan datzan Paul Ekman doktoreak 60ko hamarkadaren amaieran egindako bi esperimentuak, bai eta esperimentu horietan lortutako emaitzak ere.

Paul Ekman doktoreak burutu zuen lehenengo esperimentuaren helburua aurpegiko adierazpen unibertsalak existitzen ziren edo ez ezagutzea zen. Honetarako, herrialde desberdinetako jendeari emozio batzuk adierazteko eskatu zien eta emaitza grabatu zuten. Adierazpen hauek aztertu ondoren, zazpi adierazpen unibertsal zeudela ondorioztatu zuen. Hurrengoak dira adierazpen hauek: poza, tristezia, amorrua, beldurra, harridura, nazka eta mespretxua.

Bigarren esperimentuaren bidez sistema konplexu bat asmatu zuen, aurpegiko muskuluen funtzionamendua aztertzeko balio duena. Ondoren, alfabeto bat deskribatu zuen, beste ikertzaileekin hobeto ulertu ahal izateko. Alfabetoaren bidez jendearen mugimendu fazialak deskribatzen ziren.

9. Zer da aurpegi irakurlea? Zertarako balio du? Zertarako erabiltzen da?

Aurpegi irakurlea makina automatizatu bat da, emozioak sailkatzeko erabiltzen dena. Hartaz, emozioak identifikatzeko gailua dela esan dezakegu. Aurpegiko 56 puntu desberdinez eta 7 emozioz baliatzen da honetarako. Normalean kontsumoa eta marketina ikertzeko erabiltzen da. Baina honetaz gain, nahiz eta erabilera murriztagoa izan, aireportuko segurtasun kontroletan ere erabili ohi da.

10. Zer motatako adierazpenak ematen dute kompetentzia komunikatzen dutela?

Irribarre polit batek, benetako irribarreak pertsona hori erreal dela transmititzen du. Begietara zuzenean begiratzeak, hau da, kontaktu bisualak, aldiz, segurtasuna transmititzen du.

11. Zer dira mikro-adierazpenak?

Mikroadierazpenak gure aurpegian modu inkontzientean adierazten diren adierazpen batzuk dira, eta segundu gutxi batzuen iraupena dute (segundu erdi edo laurden irauten dute).

12. Bekainak igo eta elkartzen diren, hau da, erditik hurbiltzen diren aurpegi bati erreparatzen badiogu, zer emozio edo zirrara transmititzen ari da aurpegi hori?

Aurpegi horrek egoeraren arabera emozio bat edo beste transmitituko digu. Beldurra edo harridura transmititu dezake, edo bi hauek aldi berean.

13. Bekainak beherantz mugitzen dituen aurpegi bati erreparatzen badiogu, zer emozio edo zirrara transmititzen ari da aurpegi hori?

Aurpegi honek transmitituko digun zirrara haserrea, nazka edo sumina izango da.

14. Zer da puntu gatazkatsua?

Puntu gatazkatsua momentu jakin batean aurreikusitako emozioarekin bat ez datorren erantzun emozionala da; aurpegiaren bidez transmititzen dena.

15. Pertsonok komunikatzen dugunaren erdia baino gehiago, egiten ditugun keinuen eta gure aurpegiko adierazpenen bidez transmititzen da. Zehazki, giza komunikazioaren zer% dator keinuetatik eta aurpegiko adierazpen iheskorretatik? Eta ahotsetik?

Giza komunikazioaren %55-a dator keinuetatik eta aurpegiko adierazpen iheskorretatik; eta %38-a ahotsetik jasotzen dugu.

16. Ahotsaren zein lau ezaugarri dira zerrendatuak?

Ahots tonua, tinbrea, abiadura eta kadentzia edo erritmoa.

17. Zergatik dago osatuta hitzik gabeko komunikazioaren paketea?

Zeinuek, keinuek eta adierazpenek osatzen dute hitzik gabeko komunikazioa.

18. Zer prozedura erabiltzen du ahots-geruzen analisia (LVA) ikerketa-tresnak ahotsa ebaluatzeko?

Gezurra esaten dugunean ahotsean aldaketak gertatuko dira, eta aldaketa hauek laringean antzeman daitezke. Izan ere, laringea eta burmuina konektatuta daude. LVA ikerketa-tresna gai da aldaketa hauek detektatzeko eta hauei buruzko datuak eskaintzen dizkigu. Datuak zenbaki gisa adierazten dira, eta geroz eta zenbaki handiagoak lortu, ikertzen ari garen pertsona gezurrak esaten ari delaren probabilitatea handiagoa da.

19. Giza komunikazioaren zer ehuneko igortzen da gorputz-hizkuntzaren bidez?

Gorputz hizkeraren bidez giza komunikazioa %93-an igortzen da. Aurretik aipatu bezala, komunikazioaren %55-a keinuen bidez jasotzen dugu, eta %38-a ahotsetik.